

«Gure emanaldietan umeeek parte hartzea bilatzen dugu»

TXOMIN TAPIA

Donostia

Orain zazpi urte, babarrun-jate batean, Brinkok pailazo sudurra jarrri eta, ordutik, Euskal Herriko umeen gozagarri dira Korri, Xalto eta Brinko. Ondarroako festak dirrela eta, emanaldia eskainiko dute gaur, 17:30ean, herriko pilotalekuan, Xalto eta Brinkok.

Zer emanaldi eskainiko duzue gaur Ondarroan?

Gaur *Show berria* prestatzen ikuskizuna egingo dugu. Show honetan Korri eta Xaltok saio berri bat prestatzeko laguntza eskatzen die ikusleei. Honela, magia, joko eta musikaren bidez, umeen parte hartzea bultzatzen dugu. Gure emanaldiak oso parte-hartzaileak dira, hori da bilatzen duguna.

Horrez gain, ba al duzue pailazoen beste abenturarik?

Bai. Pailazo batzuek ikuskizun bat prestatu eta hori egiten dute urte osoan. Guk ez dugu horrelakorik egiten. Goazen tokira goazela, emanaldi desberdin bat eskaintzen dugu. Izan ere, herri batzuetan askotan egon gara, eta bertako umeei ezin diegu behin eta berriaz istorio bera kontatu.

Zer gai jorratzen dituzuen gainerako ikuskizunetan?
Gu Lezokoak gara, eta

asko gustatzen zaigu inguru horretako pertsonaiak eta tokiak ikuskizunetan sartzea. Trapujale, Zabarre pirata, Jaizkibelgo txokopak... Horiek denak aipatzeak ilusio handia egiten die bertako umeei, zuk diozuna hurbilekoa egiten zaielako.

Nolako da umeekin lan egitea?

Umeak helduak baino ikusle hobekak dira, dudarik gabe. Lanean gaudenean, umeen ilusioak eta jokorako gogoek motibatu egiten gaituzte. Ikuslea animatua bada, asko eskertzen dugu.

Zuzeneko emanaldiak alde batera utzitaz, disko eta liburuak ere badituzue.

Bai, hala da. *Exerka!* izeneko liburu bilduman gure abenturak kontatzen ditugu. Dagoeneko zortzi ale kalean dira, eta beste bat kaleratuko dugu laster: *Korri, Xalto ta Brinko*

ko liburutegian. Disko bat ere grabatu genuen, *Kantari* izenekoak.

Epe laburrera, proiektu berririk ba al duzue?

Guk emanaldi berriak beharraren arabera prestatzen ditugu. Herriren batean zerbait desberdina eskaini behar dugula ikusten badugu, saio berri bat prestatzen dugu. Hala ere, laster prest izango dugu ikuskizun bat: *Esketx ederrena prestatzen!*

Ikuskizuna. Xalto ta Brinkoren 'Show berria prestatzen'.

Lekua: Ondarroako pilotalekuan.

Noiz: Gaur, 17:00etatik aurrera.

«Laster prest izango dugu 'Esketx ederrena prestatzen' haurrentzako emanaldia»